



# LIZARRAKO UDALEKUAK



# AURKIBIDEA

- 1. Ongi etorri!**
- 2. Datak eta informazio garrantzitsua-** Fechas e información de interés
- 3. Helburuak-** Objetivos
- 4. Antolakuntza-** Organización
- 5. Ekintzak-** Actividades
- 6. Programazioa-** Programación
- 7. Zerbitzuak-** Servicios
- 8. Izen ematea-** Inscripción





**Lizarrako Udalekua Lauaxeta Ikastolak antolatutako aisialdi esperientzia da. LH3, LH4 eta LH5 mailako ikasleei zuzendutako 14 eguneko egonaldia eskaintzen du.**

**Udalekua Lizarrako Obeki aterpetxean egiten da, kokapen estrategiko eta egoki batean. Bertan, ikasleek esperientzia ahaztezina bizi dute, adiskidetasuna sendotuz eta ikaskuntza informala bidez gaitasun berriak garatuz. Udalekuak egitura eta antolaketa zorrotza du, eskarmentudun begiraleek gidatua.**

**Udalekuaren helburua ez da soilik aisialdia eskaintzea, baizik eta parte-hartzaileei bizipen aberasgarriak ematea, haien hazkunde pertsonala sustatzeko.**

**Lizarrako Udalekuak, beraz, ikasleek bizitza osorako gogoan izango dituzten oroitzapenak sortzeko espazio ezin hobea eskaintzen du.**

Lizarrako Udalekua es una experiencia de ocio organizada por Lauaxeta Ikastola. Ofrece una estancia de 14 días dirigida a estudiantes de 3º, 4º y 5º de Educación Primaria.

El campamento se lleva a cabo en la residencia Obeki de Lizarra, un lugar con una ubicación estratégica y adecuada. Allí, el alumnado vive una experiencia inolvidable, fortaleciendo amistades y desarrollando nuevas habilidades a través del aprendizaje informal.

El campamento cuenta con una estructura y organización rigurosa, guiada por monitores y monitoras con experiencia.

El objetivo del campamento no es solo ofrecer ocio, sino también proporcionar vivencias enriquecedoras que fomenten el crecimiento personal de quienes participan. Así, Lizarrako Udalekua ofrece un espacio ideal para crear recuerdos que les acompañarán toda la vida.



## Datak eta informazio garrantzitsua

### Fechas e información de interés

Noiz garatuko da? ¿Cuándo se desarrollará?	Norentzat da? ¿A quién está dirigido?	Zenbat plaza daude? ¿Qué número de plazas hay?	Zein da prezioa? ¿Qué precio tiene?
<b>Ekainaren 29tik uztailaren 12ra</b> Del 29 de junio al 12 de julio	<b>LH 3., 4. eta 5.</b> 3º, 4º y 5º de Primaria	<b>104 plaza</b> 104 plazas	<b>780 €</b>



**Kanpamentua esperientzi berezia da, etxetik irten eta oporraldi batean lagunekin partekatzen diren abentura eta bizipen guztiengatik, eguneroko testuingurutik erabat ezberdin eta berezia**



El campamento es una experiencia memorable, por todas las aventuras y vivencias que se comparten con los amigos y amigas en un periodo vacacional y en un contexto tan especial





## Helburuak Objetivos

- **Pertsona osasuntsu eta autonomoak garatzea.**
- **Giza balioen garapena. Ikaskuntza esperientziala.**
- **Euskararen eta euskal kulturaren transmisioa.**
- **Hizkuntzak modu naturalean lantzea.**
- **Naturarekiko eta ingurunearekiko errespetua.**

- Fomentar el desarrollo de personas autónomas y con bienestar.
- Impulsar el crecimiento en valores humanos.
- Promover el aprendizaje basado en la experiencia.
- Transmitir la lengua y la cultura vasca.
- Trabajar los idiomas de forma natural.
- Fomentar el respeto por la naturaleza y el entorno.

# Antolakuntza Organización

**Udalekuan zehar, ikasleak talde txikietan antolatzen dira eta esperientzia handiko begiraleen ardurapean daude. Helburuak hurrengoak izanik:**

- **Atentzio pertsonalizatua:** Talde txikietan, begiraleak ikasle bakoitzari arreta handiagoa eskain diezaioke, beren interesak eta beharrak hobeto ezagutuz. Honek ikasleen motibazioa bermatzen du, esperientzia aberatzago bat eskainiz.
- **Talde lana:** Talde txikietan, ikasleek elkarlanean lan egiteko aukera dute, elkarri lagunduz eta esperientziak partekatuz. Horrela, komunikazioa eta taldeko dinamikak hobetzen dira.
- **Segurtasuna eta laguntza:** Begiraleak taldeko ikasle guztiei laguntza eta gidaritza ematen die. Horrek ikasleek segurtasun handiagoa sentitzea eragiten du eta udalekuan duten parte hartzea errazten du.
- **Gaitasun pertsonalizatua:** Ikasleek talde txikietan, beren erritmoan eta gaitasunekin bat etorritik, errazago eta lasaiago parte hartu dezakete. Begiraleak ekintzak eta jarduerak egokitu ditzake talde bakoitzaren beharretara.

Durante el campamento de verano, los alumnos se organizan en pequeños grupos y están a cargo de monitores con amplia experiencia. Teniendo como objetivos:

- Atención personalizada: En pequeños grupos, el monitor o monitora puede prestar mayor atención a cada alumno o alumna, conociendo mejor sus intereses y necesidades. Esto garantiza la motivación de los alumnos, ofreciendo una experiencia más rica .
- Trabajo en equipo: En pequeños grupos, los alumnos tienen la oportunidad de trabajar juntos, ayudándose mutuamente y compartiendo experiencias. Así se mejora la comunicación y las dinámicas de grupo.
- Seguridad y apoyo: El monitor ayuda y guía a todos los alumnos del grupo. Esto hace que los alumnos sientan más seguridad y facilita su participación en el campamento de verano.
- Competencia personalizada: El alumnado puede participar en grupos pequeños, con su ritmo y en consonancia con sus capacidades, de forma más fácil y relajada. El monitor puede adaptar las acciones y actividades a las necesidades de cada grupo.





# Ekintzak Actividades

## EGUN TEMATIKOAK

Pirata eguna, San Fermin eguna, Indioen eguna, Olinpiadak edo Konkista eguna bezalako egunak daude, non jolasak, erronkak eta talde-probak protagonista diren. Egunduek giro ludiko eta dibertigarrian parte hartzeko aukera ematen dute.

## DÍAS TEMÁTICOS

Existen días como Pirata Eguna, San Fermin Eguna o Indioen Eguna, en los que los juegos, desafíos y pruebas en grupo son los protagonistas. Un ambiente lúdico y divertido.



## TRADIZIOA

Nafarroan egoteak euskal kultura bizitzeko aukera ematen du. San Fermin eguna ospatzea edo Donejakue bidearen zati bat egitea ezinbestekoak dira udalekuan.

## TRADICIÓN

El estar en Navarra ofrece la oportunidad única de vivir nuestra cultura. Celebrar el Día de San Fermín o realizar una parte del Camino de Santiago son actividades imprescindibles en el campamento.



## ENGLISH TIME

Egunean zehar zenbait ekintza ingelesez egiten dira. Jarduera horietan ingelesa jolasekin eta talde-dinamikekin uztartzen da, ikasleek modu naturalean eta dibertigarrian erabil dezaten.

## ENGLISH TIME

A lo largo del día se realizan varias actividades en inglés, que combinan inglés con juegos y dinámicas de grupo, permitiendo que los/las estudiantes usen el idioma de forma natural y divertida.



## IBILALDIAK

Obeki aterpetxeren kokapena ezinhobea da, Urbasatik 10 kilometrora. Naturarekin harremanean Dulantz mendira edo Urederrera edo Balcón de Pilatosera irteera egiten dugu.

## EXCURSIONES

La ubicación de la residencia Obeki es inmejorable, a solo 10 kilómetros de Urbasa. Se organizan varias excursiones al monte Dulantz, o a lugares como Urederra o el Balcón de Pilatos. Estas excursiones ofrecen la oportunidad de conocer el entorno natural y disfrutar de actividades al aire libre.





## IGERILEKUA

Obekiko aterpetxeak bi igerileku ditu, egun guztietan eta momentu oro eskurgarri daudenak. Igerilekua ez da aisialdirako soilik erabiltzen, hainbat ekintza zein dinamiken protagonista ere bada.

## PISCINA

La piscina es una de las características distintivas del campamento. La residencia Obeki cuenta con dos piscinas, disponibles todos los días y en todo momento.



## GAUBELAK

Egunari amaiera emateko, gaubelak antolatzen dira egunero. Giro paregabea sortzen da, lagunarteko harremanak sendotzeko eta eguneko esperientziak partekatzeko: ikuskizunak, broma jolasak, kantu gauak, linternekin jolasak , ...

## VELADAS

Para finalizar el día, se organizan veladas cada noche. Se crea un ambiente único, perfecto para fortalecer las relaciones de amistad y compartir las experiencias del día: espectáculos, juegos de bromas, noches de cantos, juegos con linternas...



## VIVAC

LH5eko ikasleek bibakak egiteko aukera dute, zenbait egunetan aterpetxetik kanpo lo eginez. Autonomia garatu eta naturarekiko errespetua sustatzen da. Bibaka esperientzia paregabea da ikasleentzat, zinez berezia eta ahaztezina. Ikasle gehien gustatzen zaien ekintzetako batean bihurtu da, ohiko egunerokotasunetik kanpo dagoen ekintza bat delako haientzat.

## VIVAC

El alumnado de 5º de Primaria tiene la oportunidad de realizar vivac, pasando varias noches fuera de la residencia. Esta actividad fomenta el desarrollo de la autonomía y refuerza el respeto por la naturaleza. El vivac es una experiencia única, verdaderamente especial e inolvidable. Se ha convertido en una de las actividades favoritas, ya que se trata de una experiencia fuera de la rutina diaria, algo distinto y emocionante. kilómetros de Urbasa. Se organizan varias excursiones al monte Dulantz, o a lugares como Urederra o el Balcón de Pilatos. Estas excursiones ofrecen la oportunidad de conocer el entorno natural y disfrutar de actividades al aire libre.





# Programazioa

## Programación

Lizarrako Udalekuak adinaren arabera diseinatutako programazio espezifikoa eskaintzen du, ikasleek beren beharretara egokitutako esperientziak bizi ditzaten. Jarduera bakoitza ikasleen gaitasunak garatzeko diseinatuta dago, erronka eta esperientzia berriak eskainiz.

**LH3ko programazioari dagokionez, ezinbestekoa da kontuan hartzea ikasleen lehen esperientzia izango dela etxetik kanpo. Horregatik jarduerak haien erritmo eta beharretara egokituta daude. Naturan bizitzen ikasteko dinamikak daude, non ingurumenarekiko errespetua eta naturarekiko harremana sendotzen diren. Kirol ekintzak ere hastapen mailan eskaintzen dira, hala nola orientazioa eta mendi-irteerak. Talde jolasak eta sormen-tailerrek berebiziko garrantzia dute, ikasleen sormena eta talde-lana sustatzeko. Bestalde, ingeleseko dinamizazio saioak jolasen bidez egiten dira, hizkuntza modu naturalean lantzeko.**

**LH4ko programazioak erronka handiagoak eskaintzen ditu LH3koarekin alderatuta. Naturarekiko lotura sakontzeko, orientazio jolasak, talde-lanak eta ingurumenarekiko kontzientzia pizteko ekintzak egiten dira.**

El Campamento de Lizarra ofrece una programación específica diseñada según la edad, para que los/las estudiantes vivan experiencias adaptadas a sus necesidades. Cada actividad está pensada para desarrollar sus habilidades, brindándoles nuevos retos y experiencias enriquecedoras.

En cuanto a la programación de 3º de Primaria, es fundamental considerar que será su primera experiencia fuera de casa. Por ello, las actividades están ajustadas a su ritmo y necesidades. Se incluyen dinámicas para aprender a vivir en la naturaleza, fomentando el respeto por el medioambiente y fortaleciendo su relación con la naturaleza. También se ofrecen actividades deportivas en un nivel de iniciación, como orientación y salidas a la montaña. Los juegos en grupo y los talleres creativos tienen un papel clave, promoviendo la creatividad y el trabajo en equipo. Además, las sesiones de dinamización en inglés se realizan a través de juegos, permitiendo trabajar el idioma de forma natural.

La programación de 4º de Primaria presenta mayores desafíos en comparación con la de 3º. Para fortalecer su vínculo con la naturaleza, se llevan a cabo juegos de orientación, dinámicas grupales y actividades que

**Hizkuntza alorrean, ingelesa indartzen jarraitzen da, jolasak eta talde dinamikak erabiliz, ikasleen komunikazio gaitasunak modu naturalean garatzeko. Oraindik ere jolasa eta irudimena oinarri nagusi izaten jarraitzen dute. Ikasleek erantzukizun handiagoak hartzen ikasten dute eta jolas kooperatiboek berebiziko garrantzia dute, ikasleek taldean lan egiten eta besteen beharrak kontuan hartzen ikas dezaten.**

**LH5 mailan, ikasleek erronka berriak bilatzen dituzte eta programazioak horretarako aukera ematen die. Egunerokotasunean bizi ez dituzten esperientziak eskaintzen dira. Ekintzek naturarekin lotura askoz ere handiagoa dute, konplexutasun eta erakargarritasun handiagoarekin, hala nola gau bateko bibakak. Autoezagutza sustatzeaz gain, naturaren eta gure inguruko munduaren arteko harremana sendotzen da. Taldeko dinamikek berebiziko garrantzia dute, elkarrekin arituz, taldearen indarra eta gaitasunak aprobetxatzen ikasten dute.**

**Ondoren, udalekuko mailakako programazioak aurkezten dira\*. Taldekatzearen arabera, ekintzak kolore ezberdinez adierazita daude: kolore urdinez talde txikian egiten diren ekintzak, kolore gorriaz talde ertainean egiten direnak eta kolore berdez talde handian egiten direnak. Udalekuaren**

fomentan la conciencia ambiental.

En el ámbito lingüístico, se continúa reforzando el inglés mediante juegos y dinámicas de grupo, favoreciendo el desarrollo de sus habilidades comunicativas de manera espontánea. Aunque el juego y la imaginación siguen siendo fundamentales, también aprenden a asumir mayores responsabilidades. Los juegos cooperativos adquieren un papel esencial, ayudando a que los/las estudiantes trabajen en equipo y aprendan a tener en cuenta las necesidades de los/las demás.

En 5º de Primaria, los/las estudiantes buscan nuevos desafíos, y la programación les brinda la oportunidad de enfrentarse a ellos. Se les ofrecen experiencias que no viven en su día a día, con actividades que refuerzan aún más su conexión con la naturaleza, aumentando su complejidad y atractivo. Un ejemplo de ello es la experiencia del vivac de una noche. Además de fomentar el autoconocimiento, se fortalece la relación entre la naturaleza y el mundo que nos rodea. Las dinámicas grupales juegan un papel clave, ya que les permiten trabajar en equipo, aprovechando la fuerza y las habilidades del grupo.

A continuación, se presentan las programaciones por nivel



**kalitatea bermatzeko eta esperientzia ahalik eta aberasgarriena izateko dugun konpromisoari jarraituz, urtez urte programazioak egokitu eta moldatu egiten ditugu, parte-hartzaileen beharretara eta errealitatera moldatuz.**

del campamento. Según la agrupación, las actividades están representadas con diferentes colores: en azul, las actividades realizadas en grupos pequeños; en rojo, las realizadas en grupos medianos; y en verde, aquellas en las que participa todo el campamento. Siguiendo nuestro compromiso de garantizar la calidad del campamento y ofrecer la experiencia más enriquecedora posible, año tras año ajustamos y adaptamos las programaciones a las necesidades y realidades de los/las participantes.





### LH 3.

#### 3º de Primaria

LH 3	1. eguna 30	2. eguna 1	3. eguna 2	4. eguna 3	5. eguna 4	6. eguna 5	7. eguna 6	8. eguna 7	9. eguna 8	10. eguna 9	11. eguna 10	12. eguna 11	13. eguna 12	14. eguna 13
08:00	BEGIRALEAK ALTXATU ETA PRESTATZEA													
08:30	UMEAK ITXARTU, JANTZI, HORTZAK GARBITU, MOTXILAK PRESTATU ETA KREMA EMAN ETA TXAPELA HARTU													
09:00	GOSARIA													
09:30	DENBORA LIBREA													
10:00	ONGI ETORRIA	PIRATEN EGUNA Aurkezpena + mozorroak Pirata gynkana	PANTXIKE GOIZA Antzerkia sortu eta egin	UREDERR A irteera	Konkista eguneko kamisetak Mahai jokoak	BALCON DE PILATOS irteera	AMALURRA EGUNA	SAN FERMIN Entzierroa Herri kirolak	KALABERA irteera	KONKISTA EGUNA aurkezpena Eurasia+Afrika Antartika	PEREGRIN O EGUNA Aurkezpena + kontxak Mezuaren bila	TTE Nekatze j. Aerobic	AZOKA EGUNA Prestatu Udalekuko bideoa	Maletak amaitu ETXERA!
13:15	BAZKARIA													
13:45	DENBORA LIBREA													
15:00	Logelak atundu	Abestia	Hi selfie	20 segundo	Abestia	TTE	What's up	TTE	Bingoa	Herrialde dantza	Azketa - Iratxe	Abestia	Azokan jolastea	
15:30	Ezagutza j. + kariñogram	Ur gynkana	Hi selfie	20 segundo	Nekatze jolasak	Esku jokoak	Gozokiak	Sokatira torneoa+ Euskal tribiala	Barre j.	Ozeania	Azketa - Iratxe	Urkatua Kiniela	Azokan jolastea Gozokiak	
17:00	AZKARIA													
17:30	Igerilekua	Igerilekua	Igerilekua	TTE	Igerilekua	BALCON DE PILATOS irteera	Igerilekua	Euskal dantzak	Igerilekua	Igerilekua	Iratxe- Lizarra	Igerilekua	Igerilekua	
19:00	DUTXAK													
20:00	AFARIA													
20:30	DENBORA LIBREA													
21:00	Konfiantza j.	Peruren bila	Itsasontzi urperatua	Erlajazioa	Furor	Dantzaldia	Landatzea + Itxiera	Zezenaren bila	Ebaluazioa	Itxiera ekitaldia	Broma jolasak	Ikuskizuna	Azken dantzaldia	
22:30	UMEAK OHERATZEA: HORTZAK GARBITU, PIJAMA JANTZI ETA LOTARA													
23:00	BEGIRALE BILERA													

### LH 4.

#### 4º de Primaria

LH 4	1. eguna 30	2. eguna 1	3. eguna 2	4. eguna 3	5. eguna 4	6. eguna 5	7. eguna 6	8. eguna 7	9. eguna 8	10. eguna 9	11. eguna 10	12. eguna 11	13. eguna 12	14. eguna 13
08:00	BEGIRALEAK ALTXATU ETA PRESTATZEA													
08:30	UMEAK ITXARTU, JANTZI, HORTZAK GARBITU, MOTXILAK PRESTATU ETA KREMA EMAN ETA TXAPELA HARTU													
09:00	GOSARIA													
09:30	DENBORA LIBREA													
10:00	ONGI ETORRIA	Orienting	TELEBISTA EGUNA Aurkezpena Erronka	PEREGRIN O EGUNA Kontxak	Konkista eguneko kamisetak	BALCÓN DE PILATOS irteera	INDIOEN EGUNA Aurkezpena + mozorroa	SAN FERMIN Entzierroa	Herriko toki sakratuak	KONKISTA EGUNA aurkezpena Eurasia+Afrika	Bide berdea Lizarra - Arbeitza	ZIRKO EGUNA Aurkezpena + tailerrak	AZOKA EGUNA Prestatu	Maletak amaitu ETXERA!
13:00	Bikote j.	Euskal pasapalabra	Lorca - Villatuerta	Aerobic			Indio gynkana	Herri kirolak	Herriko argazkiak	Antartika	Ibilbidea + historia	Zir gynkana	Udalekuko bideoa	
13:15	BAZKARIA													
13:45	DENBORA LIBREA													
15:00	Logelak atundu	Playback	BBC news		Playback	TTE	Indio harrapaketa + Dantza zirkularra + gozokiak	TTE	TTE	Herrialde dantza	TTE	Playback	Azokan jolastea	
15:30	Ezagutza j. + kariñogram	Nekatze j.	Master Chef	Kontxa lapurreta	Nekatze j.	Esku jokoak		Sokatira torneoa+ Euskal tribiala	Igerilekua	Ozeania	Antzinako jokoak	Zirkora moldatutak o ekintzak	Gozokiak	
17:00	AZKARIA													
17:30	Igerilekua	Igerilekua	Igerilekua	Villatuerta - Lizarra	Igerilekua	BALCON DE PILATOS irteera	Igerilekua	Euskal dantzak	Edertasun tailerra	Igerilekua	Arbeitza - Lizarra (pistak)	Igerilekua	Igerilekua	
19:00	DUTXAK													
20:00	AFARIA													
20:30	DENBORA LIBREA													
21:00	Konfiantza j.	Estrategia jolasa	Got talent	Diplomak eta mandalak	Furor	Dantzaldia	Espartanoen jolasa	Mezuaren bila cluedo	Ebaluazioa	Itxiera ekitaldia	Broma jolasak	Ikuskizuna	Azken dantzaldia	
22:30	UMEAK OHERATZEA: HORTZAK GARBITU, PIJAMA JANTZI ETA LOTARA													



**LH 5.**  
5<sup>a</sup> de Primaria

LH 5	1. eguna 27	2. eguna 28	3. eguna 29	4. eguna 30	5. eguna 1	6. eguna 2	7. eguna 3	8. eguna 4	9. eguna 5	10. eguna 6	11. eguna 7	12. eguna 8	13. eguna 9	14. eguna 10	
08:00	BEGIRALEAK ALTXATU ETA PRESTATZEA														
08:30	UMEAK ITXARTU, JANTZI, HORTZAK GARBITU, MOTXILAK PRESTATU ETA KREMA EMAN ETA TXAPELA HARTU														
09:00	GOSARIA														
09:30	DENBORA LIBREA														
10:00	ONGI ETORRIA	CONQUIS EGUNA Aurkezpena + hasiera	Mojardín Gaztelua - Lizarra	Antzerkia	Lizarra - Antzin	Acedo - Murieta	Paintball	Jolas ez lehiakorrak	Villatuerta buelta	Mihiluze	SAN FERMIN Entzierroa	Lizarra - Montejurra	Azoka eguna Prestaketa	Maletak amaitu ETXERA!	
13:00				Zientzia txokoa				Build up!	Mandalak	Antzerkia	Herri kirolak		Udalekuko bideoa		
13:00	BAZKARIA														
13:30	DENBORA LIBREA														
14:30	Ezagutza j. + kariñogram	Conquis eguna (Villamayor de Monjardiner)	Antzerkia	TTE	Antzin - Acedo	Igerileku naturala	Antzerkia	Antzerkia	Igerilekua	Eusko- linpiadak	TTE	Montejurra - Lizarra	Azokan jolastea		
15:00			TTE	TTE			Asmakizunak	Lur gynkana			Euskal tribiala		Gozokiak		
17:00	Logelak atondu		Igerilekua	Erromatar eta Galoak											
17:00	AZKARIA														
17:30	Hi selfie	Conquis eguna (Villamayor de Monjardiner)	Igerilekua	Orienting	Igerileku naturalak	Murieta - Lizarra	Herri gynkana +gozokiak	Ur gynkana	Igerilekua	Tangram	Euskal dantzak	Igerilekua	Igerilekua		
19:30	DUTXAK		DUTXAK	Giganteak, ipotxak eta sorginak	DUTXAK										
20:00	AFARIA														
20:30	DENBORA LIBREA							Villatuertara Egusentia Maurieneko gurutzean Bibac	DENBORA LIBREA						
21:00	Konfiantza j.	Kiniela Bibac	Zentzumenak	Cluedo	Kutxaren j. Bibac	Arrautzaren esperimentua	Zumba	Masaje tailerra	Itsasontzi urperatua	Gorputz perkusioa	Ikuskizuna	Azken dantzaldia			
22:30	Talde bilketa						Ebaluazioa	Talde bilketa							
22:30	UMEAK OHERATZEA: HORTZAK GARBITU, PIJAMA JANTZI ETA LOTARA														
23:00	BEGIRALE BILERA														





# Zerbitzuak

## Servicios

Obeki aterpetxeak instalazio bikainak eskaintzen ditu udalekua aurrera eramateko eta parte-hartzaileen esperientzia ahalik eta erosoena izateko. Egoitzak logela partekatuak, jolas-eremuak, kirol-pistak eta bi igerileku ditu. Horrez gain, sukaldea ere badago, non eguneko otorduak bertan prestatzen diren, kilometro zero kontzeptuaren baitan tokiko produktuak erabiliz. Horrek ikasleen elikadura osasuntsua bermatzen du eta ingurumena errespetatzen duen sukaldaritza sustatzen du.

Udalekuan parte hartzen duten ikasleek ez dute mugikorrik eramaten, haien esperientzia ahalik eta aberasgarriena izan dadin. Horren ordez, gutunak idazten dituzte, eta posta bidez bidali eta jasotzen dituzte, komunikazio-esperientzia desberdin eta aberatsa biziz.

Horrez gain, udalekuak Instagram kontu ofiziala ([@lizarraudalekua\\_lauaxetaikasto](#)) dauka, non familiek egunegun eta zuzenean ikusi ahal duten udalekuetan gertatzen dena. Udalekuko arduradunek konpromisoa dute egunero argazkiak partekatzeaz eta familiekin harreman estua edo zuzena izateaz.

La residencia Obeki ofrece unas instalaciones excelentes para llevar a cabo el campamento y garantizar la experiencia más cómoda posible. El centro cuenta con habitaciones compartidas, zonas de juego, pistas deportivas y dos piscinas. Además, dispone de una cocina en la que se preparan las comidas del día, utilizando productos locales bajo el concepto de kilómetro cero. Esto asegura una alimentación saludable y fomenta una cocina respetuosa con el medio ambiente.

El alumnado que participa en el campamento no lleva teléfono móvil, con el fin de que su experiencia sea lo más enriquecedora posible. En su lugar, escriben cartas que envían y reciben por correo, viviendo una experiencia de comunicación diferente y especial.

Además, el campamento tiene una cuenta oficial de Instagram ([@lizarraudalekua\\_lauaxetaikasto](#)), donde las familias pueden ver cada día y en tiempo real lo que está sucediendo en el campamento. Los/las responsables del campamento se comprometen a compartir fotos diariamente y mantener una comunicación estrecha y directa con las familias.





# Izen ematea

## Inscripción

- **Plaza gorde aurretik kontuan hartu dezazuen, udalekura bisitarik ezta telefono deirik ez dala posible jakinarazten dizuegu.**
- **Ordainketari dagokionez, prezioaren %50a apirileko ordainagirian gauzatuko da eta beste %50a ekaineko ordainagirian.**
- **Udaleku eskaera atzera botatzea nahiko balitz, hurrengo euki beharko litzateke kontutan.**
  - **Martxoak 30a orduko atzera botako balitz; ez da ezer kobratuko.**
  - **Apirilak 1 - Maiatzak 30 bitartean atzera botako balitz; apirileko ordainagirian ordaindutakoaren %50a bakarrik itzuliko da (hau da, udalekuko prezioaren %25a ez da itzuliko).**
  - **Ekainak 1etik aurrera eta udalekua hasi bitartean; udalekuko prezioaren %50a bakarrik itzuliko da.**
- **Behar den eran arrazoitutako osasun arazoiren bategatik izan ezik, ez da dirua guztiz itzuliko.**
- **Ez da posible plazarik eskatzea, ikasturteko errezibo arrunten ordainketan atzeratuta egonez gero.**

- Durante los días del campamento, no se admiten visitas al campamento ni llamadas telefónicas.
- En cuanto al pago, el 50% del precio se hará efectivo en el recibo de abril y el otro 50% en el recibo de junio.
- Si se quisiera cancelar la inscripción, habría que tener en cuenta lo siguiente:
  - Cancelaciones hasta el 30 de marzo; no se cobrará nada.
  - Cancelaciones entre el 1 de abril - 30 de mayo; sólo se devolverá el 50% de lo abonado en el recibo de abril (es decir, no se devolverá el 25% del precio del campamento).
  - Cancelaciones entre el 1 de junio - Hasta el inicio del campamento, sólo se devolverá el 50% del precio del campamento.
- No se realizarn reembolsos salvo por motivos de salud debidamente justificados.
- No es posible solicitar plaza en caso de estar atrasado en el pago de los recibos ordinarios del curso.

- **Edozein zalantzaratako, idatzi mesedez: [gizagirre@lauaxeta.eus](mailto:gizagirre@lauaxeta.eus)**
- **Izena emateko epea martxoaren 21ra arte luzatzen da. Plaza eskatzeko, beheko botoian klikatu:**

- En caso de cualquier duda, se puede escribir a [gizagirre@lauaxeta.eus](mailto:gizagirre@lauaxeta.eus)
- El plazo de inscripción se extiende hasta el 21 de marzo y podrá realizarse accediendo al siguiente botón:

**Izena eman nahi dut**  
**Quiero inscribirme**





LAUAXETA  
IKASTOLA  
[lauaxeta.eus](http://lauaxeta.eus)